

**"San Sebastián Turismo - Donostia Turismoa, S.A."ren MARKETIN KUDEAKETAKO TEKNIKARIAREN lanpostua aldi baterako betetzeko hautaketa prozesuaren kanpo deialdiaren baldintzak.**

**LEHENENGOA. DEIALDIAREN HELBURUA**

---

SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA, S.A. sozietatearen MARKETIN KUDEAKETAKO TEKNIKARIAREN eginkizunak aldi batez betetzeko hautaketa prozesua egitea da deialdi honen helburua.

Lanpostu honen funtzioak, Sozietatearen organigraman jasotakoaren arabera, dokumentu honen I eranskinean zerrendatuak daudenak izango dira.

Lanpostuari 2024an esleitutako urteko ordainsari gordina 43.016,19 euro da.

**BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BETEKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK**

---

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epemugan ondoko baldintza baztertzailleak betetzen dituztenek har dezakete parte hautaketa prozesuan:

- A) Espainian legezko bizilekua eta lan baimena izatea.
- B) 16 urte beteak izatea.
- C) Deitutako lanpostuetako eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- D) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasunaren edo bateraezintasunaren legezko kausa ez izatea.
- E) Turismoarekin, Marketinarekin edo antzekoekin zerikusia duten espezialitateetako unibertsitate-graduako titulazioa izatea edota horrelako titulua lortzeko eskubideak ordaindu izana.
- F) Eskatzen diren hizkuntzak ezagutzea egiaztatzen duten ziurtagiri ofizialak edukitzea:
  - Euskara: Euskarazko C1 maila egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala edo homologagarria edukitzea edo, hala badagokio, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria edukitzea.
  - Ingelesa: Ingeleseko B2 maila egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala edo homologagarria edukitzea.
- G) Esparru teknikoko marketin-funtzioetan gutxienez urtebeteko esperientzia izatea.

Betekizunak hautaketa prozesua bukatu arte bete beharko dira, eta baldintzak betetzen ez dituzten izangaiak edozein unetan baztertu ahal izango dira prozesutik.

## **HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEA**

---

Hautagaiek dagokion eskaera aurkeztu beharko dute prozesuan parte hartzeko; horretarako, prozesurako gaitu den Parte hartzeko Eskabide Orria bete beharko dute 10 egun naturaleko epean, Deialdi hau prentsan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hain zuzen, 2024ko abuztuaren 5etik 2024ko abuztuaren 14a, 14:00ak arte

**Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:**

- a) [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus) helbidean, kontratazio atalean, ([www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa](http://www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa)) eskuragarri dagoen **Parte hartzeko Eskaera-orria** behar bezala beteta, eta **bertan adierazi beharko da bigarren baldintzan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla**, betiere parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunari begira. Baloratuko diren merezimenduak ere aitortu beharko dira.

Bigarren baldintzan eskatutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duen jatorrizko dokumentazioa hautaketa prozesuaren 3. fasean eskatuko da egiaztatzeko, merezimenduen balorazioari buruzko dokumentazioarekin batera, adieraziko den moduaren eta epearen arabera. Jatorrizkoa eta fotokopia bat ez etortzea hautaketa prozesutik kanpo uzteko arrazoi izan daiteke.

- b) **Curriculum Vitae eguneratua aurkeztuko da aipaturiko eskaera orriarekin batera.**

Eskaerak Zuzendaritza arlora bidaliko dira, helbide elektronikoa honetan: [direccionsansebastianturismo@donostia.eus](mailto:direccionsansebastianturismo@donostia.eus).

Aipatutako epean eta moduan aurkeztutako eskaerak baino ez dira onartuko, eta betekizun horiek betetzen ez dituzten guztiak baztertu egingo dira.

Eskatzen diren dokumentuen bidez behar bezala egiaztatu ez diren eskaerak hautaketa prozesutik baztertu ahal izango dira, enpresak hala erabakitzen badu, bere iritziz agerikoa bada ezin direla zuzendu.

## **LAUGARRENA. IZANGAIAK ONARTZEA**

---

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, hautaketa prozesuan onartu eta prozesutik baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko da, San Sebastián Turismo – Donostia Turismoa, S.A.ren web orrialdean [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus) ([www.sansebastianturismoa.eus/es/contratacion](http://www.sansebastianturismoa.eus/es/contratacion)), baztertutakoen kasuan baztertzeko arrazoia adierazita. Zerrenda 2024ko abuztuaren 21ean argitaratzea aurreikusten da.

Baztertutako izangaiek dagozkion erreklamazioak egin edo akatsak zuzendu ahal izango dituzte, zerrendak argitaratzen direnetik 2 egun balioduneko epean, argitaratzeko eguna barne, zerrendan bertan adieraziko den moduan.

Enpresak alegazioak ebatzita, hautaketa prozesuan onartutako izangaien behin betiko zerrendak ezagutzera emango ditu.

Zerrenda hori osatzeko aurretik hautatu ez diren izangai guztiak ez dute izango hautaketa prozesuan jarraitzeko aukerarik.

## BOSGARRENA. HAUTAKETA PROZESUA

---

5.1 Prozesua burutzeko, Hautaketa Batzordea eratuko da -zuzendari kudeatzailea, Antolamendu eta Administrazioaren atalburua eta sozietateko langileen ordezkari bat-, hautaketa prozesua kudeatzeko eta, bereziki, aurkeztutako eskaerak baloratzeko, baita hautaketa prozesuaren fase desberdinetako probak eta merezimenduak kalifikatzeko ere. Batzordekideetako bat bertaratzeari ezezkoa bada, zuzendariak batzordekide hori ordeztzeko pertsona bat izendatuko du.

Hautaketa Batzordea hautaketa prozesua gardentasunez eta objektibotasunez burutzea arduratuko da, eta probak konfidentzialak izan daitezzen eta deialdiko baldintzak zorrotz bete daitezzen zainduko du. Horrez gain, gaitasuna izango du hautaketa prozesuan zehar sor daitezkeen zalantzak ebazteko eta prozesua modu antolatuan eta baldintza hauekin xedatutakoa betetzeko delako bermatzeko beharrezko erabakiak hartzeko, aurreikusi ez diren kasuetan aplikatu beharrezko irizpideak ezarri.

Hautaketa Batzordeak dagozkion neurriak hartuko ditu proba idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, baita parte hartzaileen nortasuna ezagutzera eman gabe zuzentzen direla ziurtatzeko ere. Era berean, fase bakoitzaren emaitzak baliozkotuko ditu eta sortzen diren gorabehera guztiak kudeatuko ditu.

Hautaketa Batzordeak aholkulari edo enpresa espezializatuak gonbidatu ahal izango ditu batzordearen lanetan parte har dezaten, egokitzat jotzen dituen gestioak eta probak egiteko, adibidez, hautagaitzak hartzeko, ariketak diseinatzeko, egiteko eta ebaluatzeko, eta abar.

5.2 Interesdunek bidezkoztat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte Hautaketa Batzordearen erabakien aurka, batzordeak horretarako jarri dituen epeetan eta kasuan-kasuan ezarritako prozedurari jarraikiz. Alegazioak egiteko epeak amaitu eta alegazioak ebatzi ondoren, erabakiak behin betiko bihurtuko dira.

5.3 Hautaketa prozesuaren baitan, ezagutza maila egiaztatzeko proba bat, gaitasunak aztertzeko probak eta aitortu eta behar bezala egiaztatu diren merezimenduen balorazioa egingo da. Ez dira baloratuko behar bezala eta aski egiaztatu ez diren merezimenduak.

**1. FASEA: Ezagutzaren azterketa:** proba baztertzailerik teoriko/praktikoa egin behar da, hautagaien profil teknikoa deialdiko lanpostuarekiko egokia den ebaluatzeko. Kanporaketa-proba honeri 25 puntu emango zaizkio gehienez, eta 15 puntu lortu behar dira 1. fasea gainditzeko.

**2. FASEA: Gaitasunen analisia:** elkarrizketa pertsonal bat egingo da, hautagaien giza profila deialdiko lanpostuarekiko egokia den ebaluatzeko. Proba honeri 15 puntu emango zaizkio gehienez, eta 8 puntu lortu behar dira 2. fasea gainditzeko.

**3. FASEA: Merezimenduen balorazioa.** Prozesuan parte hartzeko eskabide orrian aipatu eta adierazitako moduan eta epean egiaztatu diren merezimenduak 20 punturen gainean (gehieneko puntuazioa) baloratuko dira. Honako alde hauek baloratuko dira:

- Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen den titulazioa osatzeko prestakuntza, lanpostuarekin lotutakoa. Gehieneko balorazioa: 5 puntu.
  - Masterrak eta 300 orduetik gorako graduondoko ikastaroak: 3 puntu.
  - 100 ordu edo gehiagoko prestakuntza-ikastaroak: puntu 1.
  - 100 ordu baino gutxiagoko prestakuntza-ikastaroak: 0,01 puntu orduko
- Lanpostuko eginkizunekin eta erantzukizun mailarekin lotutako esperientzia profesionala. Gehieneko balorazioa: 10 puntu.

- Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,40 puntu emango dira, 10 puntu gehienez.
- Egiaztatutako hizkuntzak jakitea, hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen direnak eta beste batzuk (beste maila edo beste hizkuntza bat). Gehieneko balorazioa: 5 puntu.

Hizkuntza horietako bakoitzaren ezagutza egiaztatzeagatik, honako puntuazio hau emango da:

- C1 maila: 3 puntu
- B2 maila: 2 puntu
- B1 maila: puntu 1

Hizkuntza bakoitzerako, egiaztatzen den goragoko maila baino ez da baloratuko.

Eskaintako lanpostuaren onerako izan daitezkeen esperientzia eta prestakuntza-edukiak baino ez dira baloratuko.

Izangaiak deialdi bakarraren bidez deituko dira, eta deitutako pertsona bat probetako batean agertzen ez bada, automatikoki galduko du proba horretan parte hartzeko eskubidea; ondorioz, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatutako eta Hautaketa Batzordeak aintzat hartutako kasuetan izan ezik.

Dibertsitate funtzionala duten eta egokitzapen berezia behar duten pertsonen kasuan, probak egiteko egokitzapenak egingo dira, gainerako parte hartzaileek bezala, probak aukera berdintasunean egin ditzaten, baldin eta horrek probaren edukia guztiz aldatzen ez badu eta eskatzen den gaitasun maila jaisten ez badu.

## **SEIGARRENA. LANPOSTUA HARTZEA**

---

Hautaketa prozesua bukatu ondoren, prozesuan parte hartu duten eta fase guztiak gainditu dituzten pertsonen zerrenda argitaratuko da, izangaiak lortutako azken kalifikazio globalaren arabera puntuazio handienetik txikienera ordenatuta. Kalifikazio hori lortzeko, hautaketa prozesuaren fase bakoitzean lortutako kalifikazio partzialak batuko dira.

Hautaketa prozesuaren emaitzak behin betiko bihurtuta, laneraketa berehala egingo da, aldi baterako kontratuarekin, Lehenengo Oinarrian adierazitako moduan.

Aldez aurretik, hautatutako izangaiari prozesuan eskatu eta baloratu diren baina lehenago egiaztatu ez diren agirien originalak aurkezteko eskatuko zaio; aurkeztu ezin baditu, galdu egingo du hautaketa prozesuaren xede den kontratua lortzeko eskubidea.

## **ZAZPIGARRENA. INFORMAZIOA ADITZERA EMATEA**

---

Deialdiari eta hautaketa prozesuaren garapenari buruzko informazio guztia San Sebastián Turismo - Donostia Turismoa, S.A.ren web orrialdean [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus) ([www.sansebastianturismoa.eus/es/contratacion](http://www.sansebastianturismoa.eus/es/contratacion)) argitaratuko da, jakinarazpenaren ondorioetarako.

## ZORTZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA

---

Parte hartzaileek eskaeretan emandako datu pertsonalak, baita deialdi honen xede den prozesuan emandakoak ere, SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA, S.A.k (helbide hau duenak: Boulevard 8, Donostia / San Sebastián, Gipuzkoa; Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan, 1.479 liburukian, 81. folioan, SS-9.471 orrian, A-20188884 IFZrekin inskribatutakoak) aipatutako hautaketa prozesuan parte hartzea kudeatzeko erabiliko ditu, tratamenduaren arduradun gisa, tratamenduaren oinarria kontratu aurreko neurriak izangaiaren eskaerari berari aplikatu beharra izanik.

SAN SEBASTIÁN TURISMOA - DONOSTIA TURISMOA, S.A.k Datuak Babesteko Ordezkarri bat izendatu du (DBO), erakundearen pribatutasuna kudeatzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen dena. Ordezkarriarekin harremanetan jartzeko, [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus) helbide elektronikoa erabil dezakezu.

SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA, S.A.k deialdi honen xede den hautaketa prozesua ondo burutzeko behar-beharrezko denboraz bakarrik eta dagozkion lege betebeharrak betetzeko behar duen epe gehigarrietan gordeko ditu parte hartzaileen datuak.

Deialdi honen xede den hautaketa prozesuan publikotasun printzipioa bete behar denez, zazpigarren oinarrian aipatutako hedabidean argitaratuko dira onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak, baita parte hartzaileen puntuazioak eta azken emaitzak ere, identitate datuen ordez NAN zenbaki laburtua erabiliz.

Interes publikoan oinarritutako datu komunikazioa den argitalpen hori alde batera utzita, legeak (adibidez, epaiek, auzitegiek eta/edo agintari publikoek) hala aginduta nahitaezkoa denean izan ezik, parte hartzaileen datu pertsonalak ez zaizkie inori jakinaraziko. Era berean, ez da aurreikusten datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik.

Parte hartzaileek eskubidea izango dute (i) beren datu pertsonalak atzitu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu edo, hala dagokionean, tratamenduari uko egiteko eskaera aurkezteko, [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus) helbide elektronikora idatzizko eskabidea bidaliz; eta (ii) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren edo kontrol agintaritza eskudun baten erreklamazioa aurkezteko, bereziki, beren eskubideak erabiltzean behar bezalako erantzunik jaso ez badute.

Donostian, 2024ko abuztuaren 4a



Isabel Aguirrezabala Wurster  
Zuzendari kudeatzailea

## I. ERANSKINA

### LANPOSTUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

#### LANPOSTUAREN HELBURUA:

Marketin Unitatean laguntza teknikoa ematea, arduradunak ezarritako zuzendaritzeari, indarrean dauden planei eta zehaztutako kalitate-irizpideei jarraituz.

#### BERARIAZKO JARDUN EREMUAK:

Deialdiaren xede den lanpostuari esleitutako eginkizun nagusiak, organigraman jasotakoak, honako hauek dira:

- Marketin-unitatearen laguntza teknikoko jarduerak egitea.
- Marketin Unitateari lotutako barneko eta kanpoko jardueren informazioa kudeatzea eta koordinatzea.
- Marketin-kanpainak egiten laguntzea.
- Produktu edo zerbitzu baten inguruan etorkizunean egingo diren aurreikuspenetarako datuak biltzea eta estatistikak egitea.
- Marketin-plana idazten laguntzea.
- Jarduerak eta komunikazioak antolatzea eta kudeatzea
- Aurkezpenak hainbat formatutan.
- Txostenak, memoriak, balantzeak eta bestelako dokumentuak egitea.
- Foroak, prentsaurrekoak, bilerak, etab joatea.

#### BERARIAZKO EZAGUTZA:

- Marketin enpresarial eta/edo turistikoa
- Tokiko, estatuko eta nazioarteko turismo-sektorea
- Donostiako Turismo Jasangarriaren plana 2023-2027  
<https://press.sansebastianturismoa.eus/eu/dokumentazioa/gida-plana>
- Webs  
<https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/>  
<https://press.sansebastianturismoa.eus/eu/>
- DSST 2023 Memoria